

**HORNIDURAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN
EREDUZKO PLEGUA
(Prozedura irekia)**

AURKIBIDEA

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

1. Kontratuaren xedea.
2. Kontratu-dokumentuak.
3. Araubide juridikoa.
4. Kontratuaren alderdiak.
5. Kontratuaren balio zenbatetsia eta lizitazio-aurrekontua.
6. Kontratuaren prezioa.
7. Aurrekontu-kreditua izatea.
8. Kontratuaren exekuzio-epea eta iraupena.
9. Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko modua.
10. Lizitazio-sistema eta kontratazio elektronikoa.
11. Lizitazioaren publikotasuna.
12. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publikotasuna, informazioa eta konfidentzialtasuna.

II.- KONTRATAZIO-PROZEDURAN PARTE HARTZEA.

- 13.-Parte hartzeko arau orokorrak.
- 14.- Proposamen-aurrekontua: non eta nola.
 - 14.1. Eskatutako dokumentazioa.

III.- DOKUMENTAZIOAREN AZTERKETA ETA KONTRATAZIO MAHAIAREN JARDUKETA.

- 15.-Kontratazio-mahaia.
 - 15.1. Kontratazio-mahaiaren lehenagoko jarduketak.
 - 15.2. Kontratazio-mahaiaren jarduketa.
 - 15.3. Kontratazio-mahaiaren ekintzen emaitzak argitaratzea.
- 16.- Balio anormalak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak.
- 17.- Baldintzak betetzearen egiaztatagiriak aurkeztea adjudikazio-proposamena baino lehen.

IV.- ESKAINTZEN BALORAZIOA ETA SAILKAPENA, KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA.

18. Eskaintzen sailkapena.
19. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.
20. Adjudikazioa.
21. Kontratua burutzea.
22. Kontratua formalizatzea.
23. Formalizatzeko epea.
24. Ez formalizatzearen ondorioak.
25. Aseguruak.
26. Konfidentzialtasuna.

V.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA.

27. Lanak hastea.
28. Kontratuaren arduraduna.
29. Kontratua betetzea.
30. Epea betetzea eta emateko tokia.
31. Behar ez bezalako exekuzioa eta atzerapena.
32. Prezioa ordaintzea.
33. Faktura elektronikoa.
34. Kontratua aldatzea.
35. Exekuziorako hizkuntza-baldintzak.
36. Exekuziorako baldintza bereziak.
37. Kontratua etetea.
38. Enpresa kontratistaren ondorengotza kontratua exekutatzen den bitartean.

VI. KONTRATUA AZKENTZEA.

39. Kontratua betetzea.
40. Kontratua likidatzea.
41. Bermealdiko akatsak edo hutsak.
42. Bermeak itzultzea eta ezereztea.
43. Kontratua suntsiaraztea.
44. Kontratua lagatzea eta azpikontratatzea.

VII. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA ERREKURTSOAK.

45. Administrazioaren prerrogatibak.
46. Kontratazio-alorreko errekurtsio berezia.
47. Berraztertze-errekurtsioa.

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea plegu honen Karatularen 1. puntuan aipatzen den prestazioa da.

Plegu honetan eta preskripzio teknikoetakoan ezarritako baldintzak bete behar dira.

Pleguaren Karatulan hala baimentzen den kasuan, lizitatuzaileek aipatu eskakizunen eta baldintzen arabera aldaerak aurkeztu ahalko dituzte, puntu horretan zehaztutako kopuruan, gehienez ere.

Kontratua sortaka zatikatzen den kasuan, sorta bakoitzaren xedea izango da Karatularen 1. puntu horretan ere aipatzen den eta independenteki gauza daitekeen unitate funtzional bat. Sorta bakoitza banakatuta adjudika daiteke.

2.- KONTRATU-IZAERAKO DOKUMENTUAK.

Karatulan adierazten direnez gainera, halakorik egonez gero, hauek dira kontratu-izaerako dokumentuak:

- a) Administrazio-klausula partikularren plegua (AKPP).
- b) Preskripzio teknikoaren plegua (PTP).
- c) Kontratua formalizatzeko dokumentua.

AKPP eta PTP ezarritakoak bat ez baletoz, plegu honetan ezarritakoa gailenduko da, gai eta zehaztapen teknikoetan izan ezik.

3.- ARAUBIDE JURIDIKOA.

3.1.- Kontratuak administrazio-izaera du, eta lehenik eta behin, hauek arautuko dute:

- a) Administrazio-klausula partikularren plegu honetan jasotako klausulak, Karatulako zehaztapenen arabera (Karatula pleguaren osagaia da).
- b) Preskripzio tekniko partikularren agirian jasotako klausulak.
- c) Azaroaren 9ko 9/2017 Legea, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/18 Zuzentaraua ordeztzen duena (aurrerantzean, «SPKL»).
- d) Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea hein batean garatzen duena.
- e) 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Erregelamendu orokorra onartzen duena (aurrerantzean, APKLEO).
- f) 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa.
- g) 31/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Uraren, energiaren, garraioen eta posta zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzkoa.
- h) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- i) 3/2016 Legea, apirilekoa, kontratazio publikoan zenbait klausula sozial sartzekoa.
- j) 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.
- k) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa.
- l) 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Eusko Legebiltzarrekoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- m) 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna eraginkorra izatekoa.
- n) 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzekoa.
- o) Estatu mailako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, esparru horretan aplikatzekoa bada.

- p) Osagarri gisa, Administrazio Zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ez badago, Zuzenbide Pribatuko arauak.

3.2.- Nahiz eta ez ezagutu kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako dokumentuak edo administrazioak emandako jarraibide, baldintza-agiri edo era guztietako arauak, eta horiek guztiak hitzartutakoa exekutatzeko aplikatu beharrekoak badira, guztiak betetzeko betebeharra izaten jarraituko du enpresaburuak, ez da betebeharrak horretatik salbuetsita egongo.

4.- KONTRATUAREN ALDERDIAK.

A) Kontratazio-organoa.

- Kontratatze eskumena.- Kontratazio-organoa plegu honen karatulan aipatutakoa izango da.
- Kontratatzailearen profila.- Plegu honen karatulan aipatutakoa izango da.

B) Kontratista.

- Kontratatze gaitasuna.- HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREKIN kontratatu ahalko dute Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasuna badute, kontratatze debekurik jaso ez badute eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko eta profesionala egiaztatu badute edo, SPKlk hala eskatzen duenean, behar bezala sailkatuta badaude. Enpresaburuek, gainera, kontratuaren xede den prestazioa edo jardura burutzeko beharrezkotzat jotzen den enpresa gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan beharko dute.
 - a) Pertsona juridikoak: estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jardura-esparrua bat badatoz kontratuaren prestazioarekin, prestazioak kontratatzeko adjudikaziodunak izan daitezke.
 - b) Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresaburu ez-espainiarrek kontratuak egiteko gaitasuna izango dute, baldin eta egoitza duten Estatu legediaren arabera kasuan kasuko prestazioa eskaintzeko gaitasuna badute.
 - c) Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresaburu ez-espainiarrek kontratuak egiteko gaitasuna izango dute, baldin eta egoitza duten Estatu legediaren arabera kasuan kasuko prestazioa eskaintzeko gaitasuna badute.
 - d) Enpresaburuen elkarteek HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREKIN kontratatu ahalko dute helburu horretarako aldi baterako sortzen direnean; horrela, enpresaburuek obligazio solidarioa izango dute, eta ez dituzte elkarte horiek eskritura publikoan formalizatu beharko kontratua haien alde esleitu arte. Era berean, enpresaburuen elkartearen izenean ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu behar dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko aginpide nahikoarekin, harik eta kontratua amaitu arte, nahiz eta enpresek, garrantzi handiko kopuruak kobratu eta ordaintzeko, ahalmen mankomunatuak izan ditzaketen. Enpresaburuen aldi baterako elkarte horiek kontratua amaitu arteko iraupena izango dute.

5.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA ETA LIZITAZIO-AURREKONTUA.

Adjudikazioaren publikotasuna eta prozedura zehazte aldera, kontratu honen balio estimatua, HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK jasan behar duen BEZa kanpo, Karatulan agertzen dena da. Kontratu honetan HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK egingo duen gastuaren aurrekontu maximoa Karatulan agertzen dena da.

Karatulan adierazitakoa baino zenbateko handiagoko eskaintzak baztertuta geratuko dira, zenbateko txikienekoak hobetsiz, kopuru jakin eta zehatz bat esleitzeko.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratuaren prezioa izango da esleipenetik ateratzen dena; ezingo da izan Administrazioak ezarritako aurrekontua baino handiagoa.

Kontratuaren prezioaren barruan sartuko dira zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak, baita prestazioak eragiten dituen gainerako gastu guztiak ere, edo plegu honetan ezarritakoa betetzearen ondorioz adjudikaziodunarentzat sortzen diren guztiak, eta adjudikazio-ebazpenean adierazten diren urtekoen kargura abonatu dira, hala badagokio.

Prezioa zehazteko prestazioaren osagaien edo entregatu edo exekutatu diren prestazio-unitateen unitateko prezioa adierazten bada, HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK kontratuaren urteko gastuaren aurrekontu maximoa % 20an aldatzeko aukera gordetzen du, gastuan behar den aurrekontu-egokitzapena onartuz.

7.- AURREKONTU-KREDITUA IZATEA.

Kontratu hau betetzearen ondorioz HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK izan ditzakeen betekizun ekonomikoari aurre egiteko kreditu nahikoa dago, eta plegu honen Karatulan ageri da esleitutako aurrekontua.

Aldez aurretik tramitatzen diren kontratazio-espedienteetan, esleitzeko baldintza etenarazlea da kreditu egoki eta nahikoa izatea dagokion ekitaldian.

8.- KONTRATUAREN EXEKUZIO-EPEA ETA IRAUPENA.

Kontratuaren iraupen- edo exekuzio-epe maximoa plegu honen Karatulan adierazitakoa da.

Karatulan hala aurreikusten den kasuan, kontratua luzatu egin ahalko da prestazioak errepikatze aldera. Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua luzatu edo ez. Luzatzea erabakitzen bada, enpresaburuak ezinbestean onartu beharko du luzapena, Karatulan aurkakoa aurreikusten ez bada, eta ezin da luzapenik izan bi aldeen isilbidezko adostasunaren bidez. Luzapen hori edo horiek ezingo dira, ez banaka harturik ez batera, hasieran zehaztutakoa baino denbora gehiagorako erabaki.

Kontratu edozer arrazoiengatik era normalean edo anormalean azkenduz gero, eta hornikuntza ematen jarraitzea bermatzeko, kontratazio-organoak erabaki ahalko du kontratuak kontratu berria esleitzen den arte gehienez ere sei hilabetez indarrean jarraitzea.

9.- IZAPIDEAK, ETA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA.

9.1.-Kontratazioaren espedientea izapidetze arruntekoa edo presazko izapidetzekoa izango da, karatulako 21. puntuan adierazitakoaren arabera.

9.2.-Kontratu hau prozedura ireki bidez adjudikatuko da.

9.3.-Kontratuak adjudikatzeko moduari dagokionez, prezio baxuena izango da eskaintzak baloratzeko erabiliko den irizpide bakarra, edo irizpide asko erabiliko dira eskaintzak baloratzeko, Karatulan ezarritakoaren arabera.

10.- LIZITAZIO ETA KONTRATAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA.

Eskaintzak aurkezteko, agiriak bidali eta jasotzeko eta kontratuak sinatzeko sistema elektronikoa Karatulako 22. puntuan baimendutako kasuetan soilik erabil daiteke.

Tramitazioa telematikoki egin nahi dutenek edo jakinarazpen elektronikoak jaso nahi dituztenek ziurtagiri elektroniko aitortu bat eduki behar dute, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren

2004ko abuztuaren 16ko Aginduan ezarritakoaren arabera (2004ko urriaren 27ko EHAA, 164. zk.), eta, horrez gainera, II. eranskinean ezarritako betekizun guztiak bete behar dituzte.

Sisteman sartzeko modua II. eranskinean zehaztu da, eta onartutako ziurtagirien zerrenda www.contratacion.info edo www.euskadi.net/contratacion atarian argitaratuko da.

Sistema berariaz onartu behar da; onarpenak berekin ekarriko du enpresak baimena ematea bere datuak, lizitazio elektronikoan erabiliko direnak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialekoekin erkatuta egiaztatzeko.

11.- LIZITAZIOAREN PUBLIKOTASUNA.

Lizitazio honen iragarkia Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, SPKLren 19. artikulutik 23. artikulura artekoetan zehaztutako araubide harmonizatuko kontratua denean salbu. Kasu horretan, lizitazioa Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean (EBEO) argitaratuko da, SPKLren 156. artikuluan ezarritakoaren arabera. Estatuko Administrazio Orokorrak edo horri lotutako entitateek egindako kontratuen kasuan, lizitazioaren iragarkia, gainera, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da (BOE).

Proposamenak aurkezteko epearen zenbaketa honela egingo da:

- Lizitazioa Kontratatzailearen Profilean soilik argitaratzen denean, EBEOn argitaratzea ez dagokiolako, proposamenak aurkezteko epea, prozedura irekietan, Karatulan adierazten dena izango da; gutxienez, hamabost egun natural (zortzi, presazkoa dela aitortu bada), lizitazioaren iragarpena argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.
- Lizitazioa EBEOn eta BOEn argitaratu behar denean, epea Agiriaren Karatulan eta lizitazioaren iragarkietan adieraziko da, eta gutxienez hogeita hamar egun naturalekoa izango da, kontratuaren iragarkia EBEOra bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita.
- Epeko azkeneko eguna larunbata, igandea eta EAEn jaieguna bada, hurrengo lanegunera luzatuko da.

Beraz, lizitazioa HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO Kontratatzaileen Profilean iragarriko da (www.haurreskolak.eus). HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN kontratatzailearen profilean kontratu honen lizitazioaren deialdiaren inguruko informazioa emango da, Administrazio Klausula Partikularren Plegua (AKPP), Preskripzio Teknikoen Plegua (PTP) eta dokumentazio osagarria barne, halakorik behar denean.

12.- PRINTZIPIOAK: BERDINTASUNA, GARDENTASUNA, PUBLIKOTASUNA, INFORMAZIOA ETA KONFIDENTZIALTASUNA.

Kontratazio-organoak berdintasunez tratatuko ditu lizitatzailerak, diskriminaziorik gabe, eta gardentasun-printzipioaren arabera jardungo dute.

Esleipenaren publikotasunari buruz eta hautagaiei eta lizitatzailerari eman beharreko informazioari buruz lege honetan SPKLAN ezarritako xedapenei kalterik egin gabe, kontratazio-organoek ezingo dute enpresaburuek emandako informazioa zabaldu, baldin eta enpresaburuek informazio hori isilpekotzat jo badute; halakoxeak dira, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzen isilpeko alderdiak. Kontratazio organoek ezin izango dute informazio hori zabaldu haien baimenik gabe.

II.- KONTRATAZIO-PROZEDURAN PARTE HARTZEA.

13.- PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK.

Kontratuaren xederako proposamenak aurkeztu ahalko dituzte, aurrerago zehaztuko den forman, jarduteko erabateko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoen, espainiarrak zein atzerriarrak izan. Halaber, beste baldintza hauek bete beharko dituzte: kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala izatea, eta, hala badagokio, sailkapena egiaztatu beharko dute, eta haien helburuek, estatutu edo sorrera-arauen arabera, kontratuaren xedearekin zuzeneko zerikusia dutela, eta kontratua behar bezala exekutatzeko baliabide materialak eta giza baliabideak dituztela.

Kontratu honen zehaztasun teknikoak idazten parte hartu duten enpresek ezin izango dute lizitazioan parte hartu, parte-hartze horrek lehia libreari oztupoak jartzen baldin badizkio edo gainerako enprekin alderatuta pribilegioak sortzen badira enpresa batzuentzat.

Proposamenak aurkeztuz gero, lizitatzailleak inolako baldintzarik gabe eta salbuespenik gabe onartuko ditu baldintza-agiri honen klausulak, karatulako zehaztapenak eta gainerako kontratutik dokumentu guztiak, inolako salbuespenik gabe, eta erantzukizunpeko deklarazio bidez ziurtatuko du aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla eta prestazioa kontratatzeke eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.

Lizitatzaille bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez bakarka ez aldi baterako enpresa-elkarte bat baino gehiagoren kide moduan ere, eta bakarka lizitatzen dena ezingo da izan aldi baterako enpresa-elkartearen baten proposamenaren sinatzaileetatik bat. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek izenpetutako eskaera eta eskaintza bakar bat ere.

14.- PROPOSAMEN-AURKEZPENA: NON ETA NOLA.

Proposamenak Karatulan adierazten diren Kontratazio Zuzendaritzaren bulegoetan entregatu behar dira edo postaz bidali, lizitazioaren iragarkian adierazitako onarpen-epaiekin barruan, LAU gutun-azal itxiren bidez (A, B, C eta D). Horien kanpoaldean agiri honen Karatulan ezarritako koadroa jarriko da identifikatze aldera.

«A» GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

«B» GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ ZENBAKARRIAK EZ DIREN IRIZPIDEAK.

«C» GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ ZENBAKARRIAK DIREN IRIZPIDEAK.

«D» GUTUN-AZALA. LAGINAK.

Gutun-azalak lizitatzailleak edo ordezkatzeko duen pertsonak izenpetuta egon beharko dute nahitaez.

Proposamena posta arruntaz bidaliz gero, posta-bulegoan jarritako bidalketa-data aipatutako onarpen-epaiekin barruan dagoela justifikatu beharko da, eta kontratazio-organismoari iragarri beharko zaio eskaintza posta elektronikoz bidali dela egun horretan bertan (prebentzioa@haurreskolak.eus); era berean, telefonoz ere adierazi beharko da, telefono-zenbaki honetara 943 82 14 96 deituz. Mezu horri eskaintza posta-bulegoan utzi izanaren ziurtagiriaren kopia eskaneatua ere erantsi beharko zaio, bidalketaren edukia, data, ordua, igorlea, hartzailea eta posta-kodea adierazita.

Posta elektronikoz bidez egindako jakinarazpen hori baliozkoa izan dadin, jasota geratu beharko da bidali eta jaso izana, noiz bidali eta noiz jaso den, zer bidali den (komunikazioaren eduki osoa), bai eta nork bidali eta nork jaso behar duen ere. Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratu behar da. Kopia espedienteari erantsiko zaio.

Bi baldintzok bete ezean, epean zehaztutako eguna eta ordua baino geroago jasotako dokumentazioa ez da onartuko, ezta bidalketaren jakinarazpena proposamenak jasotzeko ezarritako epearen ondoren jasotzen bada ere. Dena den, jarritako epea igaro eta hurrengo hamar egun naturalak igaro ostean ez bada proposamena jaso, orduan ez da kasu batean ere onartuko.

Dokumentu horiek fotokopia bidez aurkeztu ahalko dira, erantzukizunpeko adierazpenak salbu, horiek jatorrizkoak izan beharko baitira. Proposatutako adjudikaziodunak jatorrizko dokumentuak aurkeztuko ditu, kontratazioko udal-bulegoak alderatu ditzan.

14.1 Eskatutako dokumentazioa.

«A» GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

Honako atal hauetan ezartzen den administrazio-dokumentazioa aurkeztu ordez, honako erantzukizunpeko-adierazpena aurkeztuko da:

1.- ERANTZUKIZUNPEKO-ADIERAZPENA (0. Eranskinean agertzen den ereduaren arabera).

Erantzukizunpeko Adierazpenari erantsiko zaion dokumentazioa:

1-Enpresaburuen elkarte osatuz gero: ABEE (Aldi Baterako Enpresa Elkarte) ERATZEKO KONPROMISO-DOKUMENTUA (0.bis eranskinean agertzen den ereduaren arabera) honako hauek adieraziz: sinatzaileen izenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren partaidetza-ehunekoa eta kontratuak irauten duen bitartean Administrazioaren aurrean ordezkari-lana egin behar duenaren izena.

2-Eskatutako kaudimen- edo sailkapen-baldintzak beste erakunde batzuen kaudimen- edo sailkapen-baldintzekin bateratzea: KAUDIMENAREN/SAILKAPENAREN BATERATZEAREN ADIERAZPEN-DOKUMENTUA, entitate biek sinatua (VIII. eta IX. eranskinetan agertzen diren ereduaren arabera).

3-Karatulan gaikuntza enpresariala edo profesionala eskatzen bada: Eskatutako gaikuntza enpresarial edo profesionalaren EGIAZTAGIRIA.

ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA.

*(17. klausulan aurreikusitako errekerimenduan eta adjudikaziodun izateko proposatutako lizitatzailaren kasuan aurkeztu beharrekoa)

1.- *Jarduteko gaitasunaren egiaztagiria, ondoren xehatzen direnen arabera:*

a) Pertsona fisikoa: Proposamengilearen NANA edo dokumentu fede-emailea.

b) Pertsona juridikoa: eraketa-eskritura edo -dokumentua, estatutuak edo sortze-egintzaren dokumentua, jarduera arautzen duten arauak adierazita. Agiriok behar bezala inskribatuta egon beharko dira, hala badagokie, dagokien erregistro publikoan, kasuan kasuko pertsona juridikoaren motaren arabera.

Nolanahi ere, beren estatutuen edo eratze-arauen arabera berezko dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-esparruaren araberrakoak izan beharko dira kontratuaren xede diren prestazioak.

c) Enpresaburuen aldi baterako elkarteak: kide bakoitzak bere gaitasuna, izaera, ordezkaritza eta kaudimena egiaztatzea beharko ditu.

d) Europar Batasuneko Estatu-kideetako enpresaburu ez-espainiarrak: enpresaburuak ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa, edo zinpeko aitortpen edo ziurtagiri bat, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenen arabera. Era berean, ezarrita dauden estatuko legedia horretan ezarritakoaren arabera, baimen bereziren bat eduki behar bada edo antolakunde jakin bateko kide izan behar bada zerbitzua eman ahal izateko, betekizun hori betetzen duela egiaztatzea beharko du enpresak.

e) Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisikoak edo juridikoak: Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorren txostena edo enpresako egoitzaren lurralde-

esparruari dagokion Kotsuletzeko Bulegoaren txostena. Era berean, aurkeztutako dokumentazio horrez gain, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak, era berean, Espainiako enpresek administrazio-kontratueta modu analogoan parte-hartzea onartzen duela erantsi beharko da. Erregulazio harmonizatuaren pean dauden kontratueta, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatua duten estatueta enpresek ez dute elkarrekikotasunari buruzko txostena aurkeztu beharrik.

2.- Ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak.- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek horretarako nahikoa ahalorde izan beharko dute. Lizitatuzailea pertsona juridikoa balitz, ahalorde hori Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko litzateke. Ekintza zehatz baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatzea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, ordezkatzeko ahalorde nahikoa duenak kopia konpultsatua, kopia notariala edo, administratiboki, Nortasun Agiri Nazionala aurkeztu beharko dute, edo hala badagokio, horren ordezeko dokumentua.

3.- Sailkapena egiaztatzeko dokumentazioa*

- Legearen arabera kontratisten sailkapena eskatu daitekeenean, egoera hori Plegu honen Karatulan jasoko da.

- SPKL-aren 89.1. artikuluen b) eta c) apartatueta aurreikusitakoaren arabera, zerbitzuen kontratuetaarako ez da eskatu beharko enpresaburuaren sailkapena. Lizitazioaren iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren agirietan kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren eta gaitasun teknikoaren edo profesionalaren irizpideak ezarriko dira. Kasu horietan, enpresaburuak bi modutara egiaztatu ahal izango du bere kaudimena: kontratuari dagokion taldean edo azpitaldean sailkatuta egotearen bitartez, edota lizitazioaren iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eskatzen diren eta kontratuaren agirietan zehazturik datozen berariazko kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen direla egiaztatuz. Sailkapena ez da ez galdagarria ez aplikatzekoa izango gainerako kontratu motetaarako. Kontratu horietarako galdatzen diren berariazko kaudimen-baldintzak lizitazioaren iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean adieraziko dira, eta kontratuaren agirietan zehaztuko dira.

- Enpresa sailkatzeke badago, sailkapena lortzeko eskabidearen egiaztageria aurkeztu beharko du, eta eskatutako sailkapena lortu duela egiaztatu, dokumentazioko akatsak eta hutsak zuzentzeko, ezarritako epearen barruan.

- Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez-espainiarrei ezin izango zaie sailkatuta egoteko beharra ezarri, lehiara bakarka edo elkartuta aurkeztu arren, baina kaudimena eta gaitasuna egiaztatu beharko dituzte.

4. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa eta profesionala frogatzeko dokumentazioa (eranskinean agertzen den ereduaren arabera).

Sailkapena galdagarria ez bada, kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren eta gaitasun profesionalaren eta teknikoaren justifikazioa aurkeztu beharko da, plegu honen Karatulan adierazitako egiaztageriak aurkeztuta.

Enpresaburuaren Aldi Baterako Elkarreketan, kaudimena eta gaitasuna zehazte aldera, kide bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak kontuan hartuko dira, SPKLren 79.5 artikuluan eta APKLEOaren 52. artikuluan ezartzen den sailkapenari kalterik egin gabe.

5.- Atzerriko enpresek, kontratua Espainian exekututako bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietan Espainiako

maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazita, eta, beharrezkoa balitz, lizitatzailerari legokiokoen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginda.

Lizitatzaileraren Erregistroaren EGIAZTAGIRIAREN bidezko akreditazioa.

Agiri honen 1., 3. eta 4. apartatuetan jasotako egoerak egiaztatzeko (kontratisten jarduteko, ordezkatzeko eta sailkatzeko gaitasunaren egiaztagiria), erregistro hauen EGIAZTAGIRIAK aurkez daitezke:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala, edo
- b) Lizitatzaileraren eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofiziala (hala badagokio), edo
- c) Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiriaren bidez.

Dagokion Erregistroak emandako egiaztagirian jaso gabeko egoerei dagokienez, exijitutako akreditazio-dokumentazioa erantsiko da.

Ziurtagiria aurkeztuz gero, lizitatzaileraren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da, ziurtagirian adierazitako inguruabarrak ez direla aldatu azalduta.

«B» GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailerak beren eskaintzak balioesteko eta neurtzeko beharrezko agiriak aurkeztu beharko dituzte, karatulan ezarritako formula bidez kuantifikatu ezin diren eskaintzak balioesteko irizpideei dagokienez.

Kasu batean ere ezin zaio erantsi gutun-azal honi ez eskaintza ekonomikoa, ez eskaintza ekonomikoaren agiri esanguratsuak, ez formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko agiriak.

«C» GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Agiri hauek izan beharko ditu:

1. Eskaintza ekonomikoa: AKPPren Eranskinen eredia egokitutako proposamen ekonomikoa.

- o Lizitatzailerak edo haren ordezkariak izenpeturik, makinaz idatzitako proposamen bakarra izan beharko du, plegu honen I. eranskin modura jasotako ereduaren arabera idatzita.
- o Eskaintza ekonomikoa ezarri behar den BEZa kontu-sail independente gisa adieraziko du.
- o Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ezingo du kontratuaren lizitazioaren aurrekontua gainditu.
- o Eragin guztietarako ulertuko da eskaintako prezioan kontzeptu guztiak jaso direla, gastuak, tasak eta edozer arlo fiskaleko eta kontratistaren onura industrialeko erabakimenak barne, BEZa IZAN EZIK, kontu-sail independente baten moduan jasoko baita.
- o Karatulan hala aurreikusten den kasuan, gutun-azal horretan proposamen ekonomikoaren ereduari dagozkion Eranskinak jasoko dira.
- o Ez dira onartuko ondorengo proposamenak:
 - Administrazioarentzat eskaintza kontuan hartzeko funtsezkoak diren alderdietan kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.
 - Aztertutako eta onartutako agiriekin loturarik ez dutenak.
 - Lizitazioaren gehienekoa gainditzen dutenak.
 - Proposamenaren zenbatekoan akats nabarmenak dituztenak.
 - Agiri honen I. eranskin gisa ageri den proposamen-eredua nabarmen aldatzen dutenak.
 - Lizitatzailerak onartzen badu eskaintza bideraezina izatea ekartzen duen okerra edo funtsik eza dagoela, ez da eskaintza onartuko.

Letretan adierazitako eskaintza eta zenbakiz adierazitakoa bat ez badatoz (soilik kopuru horrek lizitazioaren gehienekoa gainditzen badu), letretan jasotzen den kopurua gailenduko da, non eta dokumentazioaren arabera irizpide arrazionalak erabiliz Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu.

Eskaintza ekonomikoaren kontu-akatsak zuzendu egingo dira.

Kontraesanak edo akatsak ez badira eskaintzak baztertzeko modukoak, Kontratazio Mahaiak, irizpide arrazionalen arabera, administrazioarentzako onuragarriena den hautua egingo du.

- Lizitatzailerak bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; baina, Karatulan hala baimenduz gero, baimendu beste aldaera jaso ahalko ditu, eta horren ondorioz, baita eskaintza ekonomiko ezberdinak ere.

2. Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideak balioesteko behar diren agiriak, Karatulan zerrendatuak.

«D» GUTUN-AZALA: LAGINAK

PTPn (Preskripzio Teknikoen Pleguan) zehaztutako baldintza minimoak betetzen direla egiaztatzeko eta produktuen kalitatea balioesteko, lizitazioan aurkeztutako termoaren lagin bat aurkeztu beharko da nahitaez. Laginik entregatzen ez bada, ez da balioespen teknikorik egingo.

Honako hauek jasoko dira nahitaez:

1.- Gutun-azalean (edo kutxan, hala badagokio) jasotzen diren ondasunen zerrenda.

2. ESKAINTZEN DIREN ONDASUNEN LAGINAK.

Aurkeztutako lagina Haurreskolak Partzuergoaren eskura geratuko da, kontratua formalizatzen den arte. Kontratua formalizatu ondoren, itzuli egingo da, interesatuak kontratuaren erantzulearen aurrean eskaera egin ondoren.

III.- DOKUMENTAZIOAREN AZTERKETA ETA KONTRATAZIO MAHAIAREN JARDUKETA.

15.-KONTRATAZIO MAHAIA.

Eskaintzak balioesteko organo eskuduna Kontratazio Mahaia da. SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eratzen da eta presidente bat eta gutxienez lau batzordekide eta idazkari bat ditu.

Kontratazio Mahaiaren funtzionamendu-erregimena SPKLn eta horren garapen-xedapenetan araututakoa da.

C GUTUN-AZALA irekitzeko ekitaldi publikoa kontratatzailearen profilean iragarriko da.

15.1 Kontratazio-mahaiaren lehenagoko jarduketak.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiaren lehenengo ekintza A gutun-azala irekitzea da; horretarako, lizitatzaileraren zerrenda, emandako adierazpenak eta erantsitako dokumentazioa jasoko dira akta batean, hala badagokio.

Aurkeztutako adierazpenean eta erantsitako dokumentazioan akats materialak hautemanen gero, interesatuei horren berri emango zaie eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango da akatsak zuzentzeko.

Hala ere, lizitatuak baten adierazpenak akats nabarmenak edo konpondu ezinako gabetasun materialak izanez gero, ez da lizitaziorako onartuko.

15.2. Kontratazio-mahaiaren jarduketa.

a) Kontratazio-mahaiaren bigarren egintza. B eta D gutun-azalak irekitzea.

Kontratazio Mahaiak, eratu eta lizitatuak aurkeztutako dokumentazioan akatsak edo gabetasunak konpondu ondoren, onartu eta baztertu behar diren lizitatuak zehaztuko ditu.

Ondoren, saio berean, Mahaiak FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEN B GUTUN-AZALA eta onartutako lizitatuak dagozkien LAGINEN D GUTUN-AZALA irekiko da.

b) Kontratazio-mahaiaren hirugarren egintza. C gutun-azala irekitzea.

Mahaiak eratu, eta onartutako eta baztertutako proposamenak eta baztertu izanaren arrazoia edo arrazoiak jakinaraziko ditu ekitaldi publikoan, baita formula bidez kuantifika ezin daitezkeen irizpideen inguruko eskaintzei esleitutako haztapena ere.

Ebaluazio globalean onartua izateko, SPKLren 146.3 artikularen arabera gutxieneko puntuazioa exijitu den kasuan, lizitatuak gutxieneko puntuazioa izatea exijituko da, eta Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko gutxieneko puntuaziora iristen ez diren eskaintzak, eta eskaintzak ez dute hauta-prozesuan aurrera egingo.

Ondoren, B GUTUN-AZALA irekiko da: Onartutako proposamenen FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK eta proposamen horietan jasotako eskaintza ekonomikoak.

c) Kontratazio-mahaiaren laugarren egintza. Adjudikazio-proposamena.

Kontratazio Mahaiak adjudikazio-proposamena formulatuko du eskaintzen ebaluazio globala egin ondoren.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sorrarazten esleipenduntzat proposatutako lizitatuaren alde edo Administrazioaren aurka.

15.3 Kontratazio Mahaiaren ekintzen emaitzak argitaratzea.

Kontratazio Mahaiaren ekintzen emaitza gutun-azalak irekitzeko aktetan jasoko da.

16. BALIO ANORMALAK EDO NEURRIZ KANPOKOAK DITUZTEN ESKAINTZAK.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak zehazteko, SPKLren 149. artikuluan ezarritakoa beteko da, pleguaren karatulan parametro objektiboak aurreikusten badira. Horien arabera zehaztuko dira zein diren balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak.

17. BALDINTZAK BETETZEAREN EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA ESLEIPEN-PROPOSAMENA BAINO LEHEN.

Prozedura behar bezala amaitzea bermatzeko, Kontratazio Mahaiak adjudikazio-proposamena egin baino lehenago, lizitatuak legean eta kontratatutako agiri honetan exijitzen diren baldintzak betetzearen egiaztagiria aurkeztea eskatu ahalko da.

Kasu horretan, hori egin behar duten lizitatuak aipatu epean aurkeztu beharko dute eskatutako dokumentazioa, hau da, gehienez ere hamar egun baliodunetan (10). Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak ikusiz gero, hiru egun balioduneko epea emango du, eskaintzuak akatsak zuzen ditzan.

Legean eta kontratatzekeo plegu honetan ezarritako betekizunak betetzat emateko unea proposamenak aurkezteko epearen mugaeguna izango da.

Epe horretan beharrezkoa den dokumentazioa ez bada aurkezten, lizitatzailera prozeduratik kanpo geratuko da.

IV.- ESKAINTZEN BALORAZIOA ETA SAILKAPENA, KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA.

18.- ESKAINTZAK SAILKATZEA.

Kontratazio-organoak, ordena beherakorrean sailkatuko ditu aurkeztu eta pleguaren karatulan adierazitakoaren arabera zehaztutako neurritz kanpoko edo anormaltzat hartu ez diren proposamenak. Sailkapen hori egiteko, agirietan adierazitako adjudikazio-irizpideak hartuko ditu kontuan, eta, horretarako, egokiak iruditzen zaizkion behar beste txosten tekniko eskatu ahalko ditu.

Berdinketa haustea.- Abantaila berdina eskaintzen dituzten proposamenen kasuan (puntuazioan berdinketa dagoenean bi dezimalera arte), esleipenean lehentasuna ezartze aldera, SPKLren 147.2 artikuluan ezarritako lehentasun-ordena jarraituko da.

Hutsik.- Kontratazio-organoak ezin izango du lizitaziorik esleitu gabe utzi, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat bada.

Uko egitea eta atzera egitea.- Hala ere, SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazioak, esleipena erabaki aurretik, kontratua bertan behera utz dezake interes publikoko arrazoiak direla medio, edo izapidetutako prozeduran atzera egin dezake, horretan zuzendu ezin daitezkeen akatsak baldin badaude. Bi kasutan, lizitazioan parte hartzeak benetan eragindako gastuengatik kalte-ordaina eman beharko zaie lizitatzailerei.

19. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Kontratazio-organoak honako agiri hauek aurkez ditzala eskatuko dio ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileri, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango dio horretarako, eskatutako egunaren hurrengotik zenbatzen hasita:

a) **Dokumentazio administratiboa**, legean eta kontratatzekeo agiri honetan exijitzen diren baldintzak justifikatzeko.

Ezarritako betekizunak betetzat emateko unea proposamenak aurkezteko epearen mugaeguna izango da.

b) Plegu honen Karatulan hala eskatzen bada, udal-diruzaintzan Administrazio kontratatzailearen alde **behin betiko bermea** sortu izanaren egiaztatzea.

- Zenbatekoa.- Plegu honen Karatularen (BEHIN BETIKO BERMEA) apartatuan ezartzen da.
- Bermea emateko moduak.- Bermea SPKLren 108. artikuluan aurreikusitako moduetatik edozeinetan aurkeztu ahalko da.
- Administrazioak beretzat gordeko du abalen sinadura zilegiztatzea exijitzeko eskubidea.

Enpresaburuen aldi baterako elkarteen kasuan, enpresa parte-hartzaileen izenak eta IFZak zehaztu beharko dira. Era berean, enpresa horietako batek edo batzuek eratu dezakete bermea, baina, hori bai, guztira, eskatzen den kopurura iritsi beharko dute, eta batak bestea bermatu beharko du modu solidarioan.

Bermearen eraginpeko erantzukizunak.- Eskatuz gero, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikulua aipatzen dituen kontzeptuei erantzungo die.

c) **Ziurtagiri positiboa** foru-ogasunek bidalitakoa, edota, hala dagokionean, Zergak Administrazio Estatu Erakundeak, egiaztatuz erakunde horrekin zerga betebeharrak beteta dituela.

3/2011 Legearen 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, interesdunak, kontratazio-prozedura honetan proposamena aurkeztuta, administrazio honen zerga-betebeharrak betetzearen egiaztatutako biltzeko baimena ematen dio organo kudeatzaileari; hala, adjudikaziodun izateko proposatutako enpresak ez ditu aurkeztu beharko.

APKLren Erregelamendu Orokorren 13. artikuluan adierazten diren zerga-obligazioei dagozkien adierazpen edo dokumentu guztiak edo horietako bat aurkezteko obligaziorik ez duen lizitatuak erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuta beharko du inguruabar hori.

Salbuespenen bat kontuan izan behar bada, erantzukizunpeko deklarazioaren bidez egiaztatuta beharko da inguruabar hori.

d) **Ziurtagiri positiboa** Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dagoela egiaztatzeko.

e) Indarreko ekitaldiaren **alta** edo **Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren azken ordainagiria, aipatu zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin**. Zerga hori ordaintzetik salbuetsita egonez gero, aipatu zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du eta salbuespen-suposizioa aipatuko du.

f) Adjudikazioduna enpresaburuen aldi baterako elkarte izanez gero, elkarte hori eratu izanaren eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Era berean, elkarteko alderdi bakoitzak Ogasun eta Gizarte Segurantzaren arloko ziurtagiri positiboa aurkeztuko du, baita Jarduera Ekonomikoen Zergaren inguruko dokumentazioa ere.

g) Hala badagokio, kontratua exekutatzeko hitzeman dituen baliabideak izatearen edo bideratzearen egiaztatzea, SPKLren 76. artikuluan eta kontratazio-organok eskatzen duenaren arabera.

Zuzenketa.- Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak ikusiz gero, interesatuari posta elektronikoki bidez jakinaraziko zaio, eta hiru egun balioduneko epea emango zaio, gehienez ere, akatsak zuzen ditzan.

Ez-betetzea. Epe horretan beharrezko den dokumentazioa aurkeztu ezean, eskaintza baztertu dela ulertuko da eta lizitatuak prozeduratik kanpo geratuko da; beraz, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatuari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera.

Erantzukizunpeko adierazpena egitean faltsukeriaz jardunez gero, Administrazio honekin kontratatzea galaraziko da, SPKLren 71. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

20. ADJUDIKAZIOA.

Dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua kontratazio-organok. Esleipena kontratazio-organok onartuko du, ebazpen arrazoitua emanda.

Lizitatuak jakinaraztea. Esleipena lizitatuak jakinaraziko zaie eta formalizatzeko epea zehaztu beharko da.

Edozein kasutan, kanporatutako eskaintzaileak esleipen erabakiaren kontra behar bezala oinarritutako errekurtsua jartzeko adina informazio eduki behar du jakinarazpenak.

Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena.

Jakinarazpena posta elektronikoz egitea hobetsiko da, proposamenak aurkeztean lizitatzailleek zehaztutako helbidera mezu bat bidalita.

Esleipenaren publikotasuna. Jakinarazpenarekin batera, esleipena kontratatzailearen profileen argitaratuko da, eta formalizatzeko epea zehaztu beharko da.

21. KONTRATUA BURUTZEA.

Kontratua formalizatzean burutuko da.
Kontratua kontratazio-organoaren egoitzan egingo da.

22. KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Kontratua lizitazio-baldintzetara doitzen den administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da, eta dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozer erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere esleipen irizpideak aldatzea eragingo duten klausularik sartu.

23. FORMALIZATZEKO EPEA.

- Kontratuari kontratazioaren arloko errekurtsio berezia jarri ahal bazaio, formalizazioa ezin izango da egin lizitatzaillei eta izangaiei jakinarazpena igorri eta hamabost egun baliodun igaro aurretik.

Epe hori kontratuaren formalizazioa bertan behera geratzeko errekurtsorik jarri gabe igarotzen bada edo, hala badagokio, errekurtsioa ebazteko organo eskudunak galarazpena kenduz gero, adjudikaziodunak kontratua formalizatu beharko du gehienez ere bost eguneko epean, formalizatzeko eskakizuna jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

- Kontratuari kontratazioaren arloko errekurtsio berezirik jarri ezin bazaio, lizitatzaillei eta izangaiei jakinarazpena igorri eta hamabost (15) egun balioduneko epearen barnean formalizatu beharko da kontratua.

Kontratuaren exekuzioa ezin izango da hasi alde aurretik formalizatu gabe, espedientea urgentziaz edo presaz izapidetzen denean izan ezik.

24. EZ FORMALIZATZEAREN ONDORIOAK.

Kontratua adierazitako epean ez formalizatzeko arrazoiak kontratistari egozteko modukoak badira, behin betiko bermetik eskatu den behin-behineko bermearen zenbatekoa bahitzeko erabakia hartu ahal izango du Administrazioak. Kontratua ez formalizatzea administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio kontratistari.

25. ASEGURUAK.

Kontratua formalizatu ondoren, adjudikaziodunak dokumentu hau aurkeztu beharko du:

ENTITATE ASEGURATZAILAREN ZIURTAGIRIA, kontratistak sinatutako erantzukizun zibileko poliza indarrean duela egiaztatzen duena.

Adjudikaziodunak bere konturako erantzukizun zibileko aseguruia edukiko du kontratuaren iraunaldi eta bermealdi osoan, kontratuaren alderdi orokorretan edo ustiapenean, patronal-alderdian eta amaitutako lanetan, asegurupean hartuta kontratista eta azpikontratista, hala badagokio.

Aseguratutako kapitala, gutxienez, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua adina izan beharko da.

26. KONFIDENTZIALTASUNA.

Adjudikazioaren publikotasunari eta hautagaiei eta lizitatzaileri eman behar zaien informazioari kalterik egin gabe, SPKLren 133. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio-organoak ezingo du enpresek isilpean emandako informazioa zabaldu.

Enpresa lizitatzailerek aurkeztutako agiriak eta datuak izaera konfidentzialekotzat hartu ahal izango dira haiek hirugarrenei zabaltzea enpresa lizitatzailen interes komertzial legitimoen kontrakoa denean, sektoreko enpresen arteko lehia leiala kalteu dezakeenean edota DBLOan ezarritako debekuen barruan sartzen direnean.

Kontratazio-organoak kontuan har ditzan, enpresei eskatuko zaie, hala behar denean, eskaintzan konfidentzialtzat hartzen duten informazioa eta dokumentuak zein diren zehaztea.

V. KONTRATUAREN EXEKUZIOA.

27. LANAK HASTEAK.

Lanen hasieraren data ofiziala Hasiera Akta sinatzen den egunaren hurrengoa izango da, eta halakorik izan ezean, kontratua formalizatzen den egunaren hurrengoa.

Espedientea presakoa deklaratzeko bada, administrazioak lanak hasteko agintzen duenetik aurrera -idatziz agindu beharko du- hasiko da zenbatzen kontratua exekutatzeko epea, eta, administrazioak ez badu halako agindurik ematen, esleipen-jakinazpena jaso eta hurrengo egunetik eta kontratistak behin betiko bermea jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

28. KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Kontratazio-organoak pertsona bat izendatu ahal izango du kontratuaren arduraduna izan dadin. Pertsona horrek zuzendu eta ikuskatuko du kontratuan ezarritako prestazioaren exekuzioa; hain zuzen ere, prestazioa behar bezala exekutatzen dela ikuskatuko du eta horretarako erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa zuzen egiten dela ziurtatzeko.

Kontratuaren arduraduna eta bere laguntzaileak noiznahi joan ahal izango dira prestazioa egiten den lekura; halakoetan, kontratistak izendatutako pertsona haiekin joango da.

29. KONTRATUA BETETZEA.

Kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua exekutatzeko arriskua eta mentura.

Kontratua betetzeko, kontratista zorrotz lotu behar zaie preskripzio teknikoaren agiriari, lan-programari eta baldintza-agiri honetan ezarritakoari, baita baldintza-agiri honen Karatulan adierazitakoaren arabera kontratuaren osagai diren gainerako dokumentuei ere, eta, nolana ere, aintzat hartu behar ditu horiek betetzeko edo interpretatzeko Administrazioaren ordezkariak idatziz ematen dizkion jarraibideak.

Nahiz eta ez ezagutu kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako dokumentuak (haren osagai baitira) edo administrazioak onetsitako jarraibide, baldintza-agiri edo arauak, horrek ez du enpresa salbuesten horiek guztiak bete beharretik.

Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea. Halaber, kontratuaren exekuzioan omisio edo okerrik egiten badu, metodo

desegokirik erabiltzen badu edo lanak gaizki ematen baditu eta ondorioz kalterik eragiten badio botere adjudikatzaleari edo beste hirugarren bati, kontratista izango da erantzulea.

30. EPEA BETETZEA ETA EMATEKO TOKIA.

Kontratatik epe hauen barruan bete behar du kontratua: kontratu-dokumentuan kontratua burutzeko finkatu den epe osoaren barruan, bai eta exekuzioa aurrera eramateko adierazitako epe partzialetan ere.

Kontratista berandutze-egoeran jarri dela jakiteko, administrazioak ez dauka aurrez agindeirik egin beharrik.

Era berean, kontratuaren xede diren ondasunak plegu honen Karatulan adierazitako tokian entregatu beharko ditu. Hala ere, kontratuaren exekuzioan, Administrazioak beste entrega-leku bat jartzeko eskubidea gordetzen du, beti ere Euskal Autonomia Erkidegora mugatuta.

31. BEHAR EZ BEZALAKO EXEKUZIOA ETA ATZERAPENA.

Behar ez bezalako exekuzioa.

Kontratuaren xede den prestazioa behar ez bezala exekutatzen bada edo SPKLren 76. eta 202. artikuluen arabera kontratua exekutzeko konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez badira, Administrazioak plegu honen Karatulan aurreikusitako zigorrak ezarri ahalko ditu.

Berandutzea.

Kontratua betetzeko garaian, bi berandutze mota daude:

a) Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, epe osoa edo epe partzialak betetzeko garaian berandutu bada, Administrazioak kontratua suntsiarazi ahalko du edo zigorrak ezarri ditzake. Kasu bietako edozeinetan (osoa/partzialak), zigorrak eguneko kopurutan ezarriko dira, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60 euroko proportzioan, non eta plegu honen karatulan ez den ezartzen bestelako zigorren bat epe partzialetan berandutzeari buruz. Epe osoan berandutzeari buruz ere hainbat zigor ezar daitezke, agiri honen karatulan beste batzuk ezartzen ez badira.

Zigorrak gauzatzeko, kontratistari zor zaizkion ordainketa oso edo partzialetan kenkaria aplikatuko da, edo eratu den bermean, ordainketan aplikatu ezin denean.

b) Baldin eta berandutzea kontratistari egoztekoak ez diren arrazoiengatik sortu bada, eta hark hitzemandakoa betetzea proposatzen badu adierazitako epea luzatuta, Administrazioak pilotutako atzerapena adinako epea eskainiko dio gutxienez, non eta kontratistak ez duen epe laburragoa eskatzen.

Kontratuaren exekuzioan hirugarrenei sortutako kalte-galeren ordainak.- SPKLren 196. artikuluan ezarritakoa beteko da.

32. PREZIOA ORDAINTZEA.

Esleipendunak eskubidea du benetan entregatu dituen eta administrazioak kontratuan ezarritako baldintzen arabera formalki jaso dituen horniduren prezioa ordain dakion.

Faktura [elektronikoaren](#) bidez egingo du ordainketa kontratistak, ondorengo klausulan ezarritakoa beteta.

33. FAKTURA ELEKTRONIKOA.

Kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko du nahitaez HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO fakturak egin eta bidaltzeko.

Faktura elektronikoak onartzeko, ziurtagiri aitortu batean oinarritutako eta sinadura-sorgailu seguru baten bitartez eratutako sinadura elektroniko aurreratu bidez sinatuta egon beharko dira fakturok.

34. KONTRATUA ALDATZEA.

1. Kontratua burutu ondoren, interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatu ahalko da, Azpiala honetan aurreikusitako kasuetan eta moduan, 191. artikuluan araututako prozeduraren arabera, eta 207. artikuluan aurreikusitako berezitasunekin. Kasu horietan, kontratistak nahitaez bete beharko ditu kontratazio-organoak erabakitako aldaketak. Hau da:

A. Aurreikusitako aldaketak:

Kontratua indarraldian zehar aldatu ahalko da baldin eta Karatulan berariaz aurreikusten bada aukera hori, beti ere hasierako prezioaren ehuneko hogeian gehienez, eta SPKLren 204. artikuluan ezarritakoarekin bat.

B. Aurreikusi ez diren aldaketak:

Kontratuak SPKLren 205. artikuluan zehaztutako inguruabarretan eta epeetan soilik aldatu ahal izango dira:

2. Kontratuan aldaketak egiteko, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

3. Aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat, eta kontratista entzun ondoren erabakiko dira, behin betiko bermea doitu ondoren formalizatuta inprimaki administratibo batean, hala dagokionean.

35. EXEKUZIORAKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK.

Kontratuak hirugarrenei edo herritarrei zerbitzu eman beharra edo haiekin harremanetan jarri beharra badakar, kontratua exekutatzeko orduan erabiltzaileekin edo pertsonekin izan beharreko harremanetan, erabiltzaileak edo hirugarrenak hautatzen duen hizkuntza erabili behar du enpresa esleipendunak komunikaziorako, ahoz nahiz idatziz. Hizkuntzetako bat berariaz hautatu ezean, enpresa adjudikaziodunak bi hizkuntza ofizialetan bidali behar dizkie jakinarazpenak eta era guztietako berriemateak (fakturak eta bestelako agiriak barne) pertsona fisiko eta juridikoei. Hala ere, hirugarrenek noiznahi balia dezakete hizkuntza hautatzeko eskubidea, eta eska dezakete hizkuntza bat bakarrik erabiltzeko.

Normalean, administrazio kontratatzailearekin euskara erabiliko da kontratuak eragiten dituen harremanetan. Kontratuaren exekuzioaren ondorioetarako, hauxe izango da «normalean euskara erabiltzea»:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua exekutatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratatzailearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratatzaileak euskara erabiltzen badu kontratua exekutatzeko izendatutako langileekin eta ez badago inor hizkuntza hori ondo ezagutzen duenik, exekuzioaren ardura duen enpresak berehala jarriko beharko ditu administrazioarekin hizkuntza horretan jardun ahal izateko behar diren baliabideak edo behar den euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak.

b) Komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

Kontratistak euskara erabili beharko du produktuen etiketetan eta/edo bilgarrietan, baita produktuaren dokumentazio teknikoan eta jarraibideen eskuliburuan ere, eta, horretarako,

jarraibideen eskuliburuak edo kontratuaren xede diren ondasunen eta produktuen dokumentazioa bi hizkuntza ofizialetan emango ditu.

36. EXEKUZIORAKO BALDINTZA BEREZIAK.

1. Langabeziak bereziki eragindako kolektiboen enplegua sustatzeko baldintzak.

Kontratua exekutatzeke langile berriak kontratatu behar badira, enpresa kontratistek lehenasuna emango diete legezko langabezia-egoeran dauden pertsoneri, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onesten duenak) 208. artikuluan aurreikusitakoaren arabera; hori horrela, garatu beharreko lan zehatzaren ezaugarriak ikusita ezinezkoa dela justifikatzen ez bada, kontratazio berrien % 15 gutxienez kolektibo horietako pertsoneri egiten zaizkiela bermatu beharko dute.

Kontratistak kontratua exekutatzeke kontratatzen dituen langile berriak eta langabeziaren eragina bereziki pairatzen duten kolektiboetako pertsonak kontratatu dituela egiaztatu beharko du, eta, horretarako, beharrezko den dokumentazioa aurkeztuko du: kasuan kasuko langilearen izen-abizenak, NANA, eta Gizarte Segurantzaren altan eta afiliatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

Kontratatzeke betebeharrak hau salbuetsi egin daiteke, baldin eta kontratuaren adjudikazioak langileak subrogatzea baldin badakar eta kontratu berriak ez badu behartzen beste inor kontratatzerara.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada edo klausulan aurreikusitako legezko langabezia-egoeran dauden pertsonak kontratatzeke betebeharra urratzen bada, kontratua urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratuaren aurrekontuaren gehienez % 10eko zigorra jarriko da.

2. Berme sozialeko baldintzak.

Lan-baldintzak betetzeko baldintzak

Enpresa kontratistak lan-arloan, gizarte-segurantzaren, eta laneko osasunean eta segurtasunean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, eta, zehazki, garatu beharreko prestazioek lan-ordenantza edo hitzarmen kolektiboren bat behar baldin badute, kontratistak kasuan kasuko lan-ordenantza eta hitzarmen kolektiboa bete beharko du.

Enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko du, edo, bidezkoa bada, organismo eskudunen ziurtagirien bidez kontratua exekutatzean bete egin direla lanpostuen babesaren, lan-baldintzen eta lan-arriskuen prebentzioaren gainean indarrean dauden xedapenen ondoriozko betebeharrak, aplikagarri zaizkienak.

Betebeharrak hori urratzen bada, kontratua urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratuaren aurrekontuaren gehienez ere % 10eko zigorra jarriko da.

Lan-harreman indibidual eta kolektiboen gaineko araudia betetzeko baldintzak.

Gaiaren gaineko agintaritzak eskudunak enpresa kontratista kondenatzen badu administrazio-bideko zehapen irmoaren bidez, lan-harremanen arloan arau-hausteak egin dituelako -zehazki, Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapeneri buruzko Legeak (abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak) 6. edo 7. artikuluetan tipifikatutako arau-hausteak, kontratua exekutatzean eginak-, kontratua urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratuaren aurrekontuaren gehienez ere % 5eko zigorra jarriko da, baldin eta isuna arau-hauste arinagatik jarri bada (6. artikulua), edo gehienez ere % 10ekoa, baldin eta arau-hauste astunagatik jarri bada (7. artikulua).

Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapeneri buruzko Legearen 8. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso astun bat kontratua exekutatutako bitartean egiteagatik kondenatzen bada, kontratuaren

funtsezko baldintza bat urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratistak kontratua indarrrik gabe uzteko arrazoi bat sortuko du, zehapena administrazio-bidean irmo bihurtzen denean.

Halaber, kontratistak aldian-aldian kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio lan-arriskuen prebentzioan jartzen zaion edozein zehapen, kontratua exekutatzan ari den bitartean egondako gertaeren zioz, bai eta bere kontra planteatu diren errekurtsioen eta horien gaineko ebazpenen gaineko informazioa eman ere. Informazioa emateko betebeharrak hori urratzen bada, kontratuaren funtsezko baldintza bat urratutzat joko da, eta kontratistak, zehapena irmo bihurtzen denean, kontratua indarrrik gabe uzteko arrazoi bat izango du.

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzeko baldintzak.

Gaiaren gaineko agintaritzak eskudunak enpresa kontratista kondenatzen badu administrazio-bideko zehapen irmoaren bidez, lan-arriskuen prebentzioaren arloan arau-hausteak egin dituelako - zehazki, Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legeak (abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak) 11. edo 12. artikuluetan tipifikatutako arau-hausteak, kontratua exekutatzean eginak-, kontratua urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratuaren aurrekontuaren gehienez ere % 5eko zigorra jarriko da, baldin eta isuna arau-hauste arinagatik jarri bada (11. artikulua), edo gehienez ere % 10ekoa, baldin eta arau-hauste astunagatik jarri bada (12. artikulua).

Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 13. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso astun bat kontratua exekutatzen ari zen bitartean egiteagatik kondenatzen bada, kontratuaren funtsezko baldintza bat urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratistak kontratua indarrrik gabe uzteko arrazoi bat sortuko du, zehapena administrazio-bidean irmo bihurtzen denean.

Halaber, kontratistak aldian-aldian kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio lan-arriskuen prebentzioan jartzen zaion edozein zehapen, kontratua exekutatzen ari den bitartean egondako gertaeren zioz, bai eta bere kontra planteatu diren errekurtsioen eta horien gaineko ebazpenen gaineko informazioa eman ere. Informazioa emateko betebeharrak hori urratzen bada, kontratuaren funtsezko baldintza bat urratutzat joko da, eta kontratistak, zehapena irmo bihurtzen denean, kontratua indarrrik gabe uzteko arrazoi bat izango du.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasunareko baldintzak.

Kontratistak honako hauek bermatu beharko ditu kontratuaren exekuzioan: dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntza ez sexista erabiliko dela, emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro saihestuko dela, eta irudi jakin bat sustatuko dela, balio hauek izango dituen: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatu bat, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol eta genero identitate plurala.

Kontratistak Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean –otsailaren 18ko 4/2005– eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako Lege Organikoan – martxoaren 22ko 3/2007– ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu.

250 langile baino gehiago dituen enpresa kontratistak egiaztatu beharko du emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana duela, eta plan horrek Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Legeak ezarritako edukia duela.

4. Azpikontratataileei ordainketak egiteko baldintzak.

Exekuziorako baldintza berezia izango da kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei ordainketak epean barnean egitea, SPKLren 216. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Cimubisak egiaztatu ahal izango du, hala behar izanez gero, kontratistak azpikontratista edo hornitzaile guztiei ordainketak epean barnean egiten dizkien. Horretarako, kontratuaren arduradunak hala eskatuta, kontratistak azpikontratistei edo hornitzaileei ordainketak egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, horiek prestazioa amaitu ondoren.

37. KONTRATUA ETETEA.

Administrazioak kontratua etetea erabakiko balu edo kontratua SPKLren 198. artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz etengo balitz, akta bat egingo da, etetea eragin duten inguruabarrak eta kontratuaren exekuzioaren egoera adierazita.

38. ENPRESA KONTRATISTAREN ONDORENGOTZA KONTRATUA EXEKUTATZEN DEN BITARTEAN.

Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresa-batasunean, entitate xurgatzailearekin edo bat-egitearen ondorioz sortutakoarekin bere horretan jarraituko du indarrean dagoen kontratuak, eta bertatik sortutako eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuta geratuko da. Era berean, enpresen edo horien jarduera-adarren zatiketa, ekarpena edo eskualdatzea gertatzen bada, horren ondorioz sortutako erakundearekin edo erakunde onuradunarekin jarraituko du kontratuak, eta kontratutik sortutako eskubide eta betebeharrak guztien subrogazioa jasoko du, baldin eta esleipena onartu zenean eskatutako kaudimenari eusten badio.

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA.

Kontratua azkenduko da, behin beteta edo suntsituta.

39. KONTRATUA BETETZEA.

Kontratua beteta egongo da, kontratistak prestazioa osorik gauzatu badu, betiere, kontratuko baldintzen arabera eta administrazioaren nahierara.

Hartzea.

Kontratistak horniduraren xede diren ondasunak finkatutako denboran eta tokian entregatu beharko ditu, eta aurkako akordiorik izan ezean, horniduraren xede diren ondasunak entregatzeko eta garraiatzeko gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Hori egiaztatzeko, Administrazioak prestazioaren harrera- edo adostasun-egintza formal eta positiboa egin behar du (Harrera Akta) kontratuaren xedea eman edo bete eta hurrengo hilabetearen barnean, pleguaren karatulan besterik zehaztu ez bada.

Ondasunak ez baldin badaude hartzeko moduan, hala adieraziko da harrera-aktan, eta kontratistari zehatz-zehatz adierazi beharko zaio zer egin behar duen, ikusitako hutsak zuzentzeko edo horniketa, atzera berriz, itundutakoaren arabera egiteko.

Ondoreak.

1.-Esleipendunak ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango ondasunak administrazioari entregatu aurretik galdu edo hondatzen badira edo kaltea jasotzen badute, non eta administrazioa ez den jasotzeko orduan berandutu.

2.-Baldin eta ondasunak hartzeko egintza formala ondasunak entregatu ondoren egin behar bada, administrazioak izango du ondasunak zaintzeko erantzukizuna entregatzen direnetik harrera egiten zaienera arte.

3.- Administrazioa behar bezala hartu dituen ondasun eta produktu galkorren kudeaketaren, erabileraren edo iraungipenaren erantzule izango da.

40. KONTRATUA LIKIDATZEA.

Harrera- edo adostasun-akta egin eta hilabeteko epean, kontratuaren likidazioa egin behar da, eta enpresa kontratistari jakinarazi, bai eta horren emaitzako saldoa ordaindu ere, halakorik egonez gero.

41. BERMEALDIKO AKATSAK EDO HUTSAK.

Ezarritako bermealdia, Karatulan ezarritakoa, hartze- edo adostasun-datatik aurrera hasten da zenbatzen; epe hori igarota, Administrazioak eragozpenik jarri ez badu, kontratistaren erantzukizuna iraungi egingo da.

Bermealdak iraun bitartean hornitutako ondasunetan **akatsik edo hutsik egiaztatuz gero**, Administrazioak kontratistari erreklamatu ahal izango dio ondasun ezegokien ordezkioak ematea, edo haiek konpon ditzala, hori nahikoa balitz. Kontratistak eskubidea du hornitutako ondasunen aplikazioari buruzko informazioa jasotzeko eta emateko.

Bermealdian, kontratazio-organoak **helburua betetzeko ez-egoki** iritziko balie hornitutako ondasunei kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak eta hutsak direla kausa, eta ondasunon ordezkioak birjartzeari edo ondasunok konpontzeari ez-nahiko iritziko balio helburua lortzeko, bermealdia amaitu aurretik aukera izango du ondasunok ez onartu eta kontratistaren kontura uzteko, eta ordainketa-betebeharretik salbuetsita egongo da, edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

42. BERMEAK ITZULTZEA ETA EZEREZTEA.

Karatulan adierazitako bermealdia igaro bada Administrazioak inolako eragozpenik egin gabe, kontratistak ez du jada inolako ardurarik izango egindako prestazioaren inguruan, eta behin betiko bermea itzuli edo ezeztatu egingo da.

43. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

Betetzean eta suntsiarazpen bidez azkenduko da kontratua, baldin eta plegu honen Karatulan zehaztutako kausak gertatu badira, edota, hala badagokio, baita kasu hauetan ere:

- a) Kontratista pertsona partikularra bada, heriotza edo ezgaitasuna gertatzea, eta kontratista sozietatea bada, nortasun juridikoa amaitzea, SPKLren 98 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- b) Konkurtso-adierazpena edo kaudimen gabezia-adierazpena egin izana beste edozein prozeduratan.
- c) Administrazioaren eta kontratistaren arteko adostasuna.
- d) Kontratista epeak betetzerakoan berandutzea.
- e) Administrazioa ordainketa egiten berandutzea, 198. artikuluan 6. zenbakian ezarritako epea edo 8. zenbakiaren babespean zehaztutako epe txikiagoa gaindituz.
- f) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.
- g) Prestazioa hasieran hitzartutako baldintzen arabera exekututzea ezinezkoa denean, kontratua aldatu ezin bada 205. artikuluan xedatutakoaren arabera; aldaketek, banaka edo multzoan, prestazioaren prezioa aldatzen dutenean, gora edo behera, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino gehiago, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utziz.
- h) Lege honetan kontratu-kategoria bakoitzerako berariaz adierazitako arrazoiak.
- i) Kontratua exekutatu bitartean, kontratistak lan horretan ari diren langileei soldata ez ordaintzea, baita langile horiei aplikatu beharreko indarreko hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea ere.

Suntsiarazte-arrazoiak eta horren ondoreak ezartzeari dagokionez, SPKLren 211., 212. eta 313. artikuluetan ezarritakoa beteko da.

44. KONTRATUAK LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA.

Kontratuak lagatzea

Kontratataren ondorengotza-kasuei buruz 98. artikuluan ezarritakoak alde batera utzita, eta 274.2 artikuluan arabera hipoteka-hartzekodunaren alde sor litekeen subrogazioari edo 275. artikuluan arabera hipoteka betearazteko prozeduran esleipendunari kalterik egin gabe, kontratuen aldaketa subjektiboa kontratu-lagapenaren bidez egin ahalko da soilik, pleguetan aukera hori argi eta garbi jasota denean, SPKLren 214. artikuluan ezarritako mugen arabera.

Kontratistek beren eskubideak eta obligazioak hirugarrenei lagatzeko, pleguek SPKLren 214. artikuluan aurreikusten diren baldintzak eskatzea aurreikusi behar dute gutxienez.

Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak.

Azpikontatazioa

Kontratuaren eraenduko duten azpikontatazioaren arau zehatzak agiri honen Karatulan adieraziko dira, hala badagokie.

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahalko du prestazioa zati batean gauzatzea, pleguek ezartzen dutenaren arabera, salbu eta, artikuluan horren 2. apartatuaren d) eta e) letretan ezarritakoaren arabera, prestazioa edo prestazioaren zati bat kontratistak zuzenean exekutatu behar duenean.

SPKLren 215. artikuluan jasotako eskakizunak bete beharko dituzte azpikontatatuak egiteko orduan. Edozelan ere, kontratistak alde aurretik eta idatziz jakinarazi beharko du azpikontatatuak egiteko asmoa, eta honako hauek adieraziko ditu: prestazioaren zein zati azpikontatatu nahi duen eta azpikontatatuaren nortasuna, harremanetarako datuak eta azpikontatatuaren ordezkari legala(k). Era berean, behar bezala justifikatu beharko du azpikontatatuak hori exekutatzeko gaitasuna duela, alegia, behar diren baliabide teknikoak, giza baliabideak eta esperientzia, eta kontratatzeke debekurik ez duela egiaztatu beharko du, SPKLren 71. artikuluari jarraikiz.

Azpikontatistek kontratista nagusiaren aldera baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, Administrazioarekiko erantzukizun osoa kontratuaren exekuzioari dagokionez.

Kontratistak SPKLren 215. artikuluan ezarritako azpikontatazioaren baldintzak edo Karatulan ezarritako gehieneko azpikontatazio-muga berezia betetzen ez dituztenean, azpikontatatuaren zenbatekoaren ehuneko 50era arteko zigorra ezarriko da.

VII. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA ERREKURTSOAK.

45. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK.

Kontratazio-organoak du administrazio-kontratuak interpretatzeko eta haiek betetzean sortzen diren zalantzak ebazteko prerrogatiba. Halaber, interes publikoko arrazoiengatik kontratuak aldarazi, horiek amaitzea eta horrek izango dituen ondorioak zehaztea erabaki ahalko du, betiere, mugen barruan eta indarreko legerian adierazitako betekizunei eta eraginei helduz.

Kontratazio organoak interpretaziorako, aldarazpenerako eta ebazpenerako prerrogatibak erabilita hartutako erabakiak betearaztekoak izango dira berehala.

46. KONTRATAZIO-ALORREKO ERREKURTSO BEREZIA.

Kontratazioaren errekurtsu bereziaren xede izan daitezkeen kontratuetan, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri aurretik, administrazio-errekurtsu bereziaren xede izango dira SPKLren 44. artikuluan jasotako egintzak.

Administrazio-errekurtso bereziak hautazko izaera izango du eta 15 egun balioduneko epea egongo da aurkezteko, SPKLren 50. artikulua araberaz.

Errekurtso-idazkia aurkezteko, kontratazio-organoaren erregistrora jo beharko da edo errekurtsoa ebazteko organo eskudunera (Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren Erregistroa, Donostia - San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria -Gasteiz).

Nolanahi ere, errekurtsoa jarri nahi duen orok horren berri eman beharko du errekurtso-idazkirako aurreikusitako epe berean, kontratazio-organoaren aurrean idatzi bat aurkeztuta (HAURRESKOLAK PARTZUERGOA, Zuzendaritza Batzordea, Otaola etorbidea 29, Jaizkibel eraikina, 20.600 Eibar), eta errekurtsoaren xede izango den prozedura-ekintza zehaztuta.

Errekurtsoa jartzeko idazkian, honako alderdi hauek adierazi beharko dira: errekurtsoa zer arrazoik sortu duen, errekurtsogileak erabili nahi dituen froga-bitartekoak, eta, hala badagokio, SPKLren 49. artikuluan aurreikusitako izaera bereko neurriak, horiek hartzea eskatzen denean.

Idazki horrekin batera, hau aurkeztu beharko da:

- a) Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua, non eta organo berean ebazteke dagoen beste errekurtso batean aurkeztu ez bada. Kasu horretan, ziurtagiria eskatu ahal izango da, prozedurarekin batzeko.
- b) Errekurtsogilearen legitimazioa frogatzen duen dokumentua edo dokumentuak, legitimazioa herentziaz edo beste edozer tituluren bidez jaso duenean.
- c) Aurkaratutako berariazko egintzaren kopia edo helarazpena, edota berau jaso duen espedientearen aipamena, edo berau argitaratu den aldizkari ofizialarena edo kontratugilearen profilarena.
- d) Errekurtsogilearen eskubidea oinarritzen duen dokumentua edo dokumentuak.
- e) Errekurtsoa jartzeko asmoa iragarri izanaren egiaztatzea.

47. BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA.

Errekurtso berezia jarri ezin zaien administrazio-kontratuen adjudikazio-prozeduretan ematen diren ekintzen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.